



Jon Alonso

## Hiri hondakin solidoak

Enekoitz Ramirez, *Lanbas*, etakide ohia, preso ohia, arte salerosle ohia eta lapur ohia zintzoen saldoarentzat lanean jarraitzen du. Oraingoan Euskaltzaindian jasotako hainbat mehatxu ikertzen jarriko dute lehenik eta, gero, Bartzelonan, edukiontzi batean biluzik eta hilik agertu den unibertsitate irakasle eta euskaltzainaren heriotza. Hala, bada, ertzainak prostitutak, unibertsitate irakasleak, mossoak, kazetariak, euskaltzainak eta mota guztietako hondakinak agertuko zaizkigu Lanbasen abentura berri honetan.

312 orr. 18,50€

ISBN 978-84-16350-22-3



9 788416 350223

**Jon Alonso** | (Iruñea, 1958). Biologian lizentziaduna, euskara irakaslea izandakoa, gaur egun itzultzailea da. 1995ean Mikel Zarate saria jaso zuen *Idiaren eraman handia* saiakeragatik. 2001ean, aurreneko Juan Zelaia saria irabazi zuen *Agur, Darwin* (eta beste arkeologia batzuk) lanarekin. 1995ean argitaratu zuen lehen nobela, *Katebegi galdua*, eta 1998an nobela eta saiakera artean dagoen *Camembert helburu* lana. Ondoren, *Euskal karma* rapsodia, *Hodei berdeak* eleberria, *Erretzaileen eremua* ipuin liburua argitaratu ditu, besteak beste. *Camembert helburu* lanean aurrenekoz agertutako Enekoitz Ramirez *Lanbasen* ibilera berriak kontatu zituen 2012an argitaratutako *Zintzoen saldoan* eta, orain, eskuartean daukazu *Hiri hondakin solidoak* eleberrietan. Itzulpengintzan ere aritua da; berak euskaratu zuen Jose Saramagoren *Lisboako setioaren historia*, Julio Cortazarren zenbait ipuin *Julio Cortazar: Antologia apetatsua* eta Jon Bilbaoren *Kometaren eraginpean*.

